

Aretxagazeta



Asier Atxa

**23 urte azpikoen
Gipuzkoako Txapelduna**

Bergarako 62. Mendekoste saria irabazi ostean, 23 urte azpikoen Gipuzkoako Txapelduna da. Orain, Nafarroako Itzulian dabil, eta bere momentua aprobetxatu gura du zerbait lortzeko.

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Baserritarren eta
artisauen VI. ferixie /8



GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 1
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 2
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatutan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
Udaleku irekietan parte hartzeko izena emateko epea ekainaren 10era arte dago zabalik. Kultura etxean edo Ludotekan eman ahal izango duzue izena.

EPEH PLATAFORMAREN BILERA
Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataformak batzarra egingo du ekainaren 3an, astelehenean, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK, ERRIOXARA
Basotxo erretiratuak elkarteak Errioxara bidaia antolatu du ekainaren 12an. Goizean Naiara bisitatuko dute eta bazkaltzera Ezkaraira joango dira. Bidaia eta bazkaria 14 euro izango dira eta izena emateko epea ekainaren 7an bukatuko da.

DIAMANTEZKO EZTEIAK OSPATZEKO IRTEERA
Aurten 75 urte beteko dituzten herritarrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte. Hori dela eta, ekainaren 15ean, Donostiarako irteera egingo dute. Intere-satuok eman izena ekainaren 5a baino lehenago honako telefono zenbakiren baten: 943 79 77 72 (Eduardo Altube) edo 943 79 85 60 (Tere Barandiaran).

LORAMENDIREN AGENDA

RAMON AGIRREREN 'ONDO ESAN BEHARKO' ANTZEZLANA EKAINAREN 7AN
Loramendi euskara elkarteak antolatuta, Ramon Agirrek *Ondo esan beharko* antzezlana eskainiko du. Antzerkia, musika, umorea... nahasten diren komedia ikuskizuna izango da. Ekitaldia ekainaren 7an, egubakoitzean, izango da udaletxe zaharreko bigarren solairuan, arratsaldeko zazpitan.

ORAIN DELA 9 URTE ARETXABALETAN

Tril emakume taldearen aurkezpena egin zuten


1993. urteko maiatzaren 23an sortu zen Tril emakume taldea. Aurkezpen ekitaldia Uratz-alde elkartean egin zuten, eta zortzi emakume batu ziren. Tril garai bateko Beinke euskara elkarte-an sortu zen. Beinke gaur egun desagertuta dago, baina Trilek antolatzen ditu ekintza batzuk.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Zintzurra"

Eztarriko irtenunea.




GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Ortzadarra sutan'

Nobela horretan 18 urteko lau neska eta beste lau mutil elkartuko dira oporrak Donostiako etxebizitza baten pasatzeko. Han izango dituzte euren lehen sexu harremanak, bai eta ezusteren bat ere beste ere. Gertakizun hori pasatu eta gero ez dute luzaroan elkarren berri izango, hamabost urtean. Baina halako baten, denak berriro elkartzeko deialdi misteriosua jasoko dute.



ORTZADARRA SUTAN

Fernando Morillo
Elkarlanean, 2002
249 orri

Lehenengo amodioak eta sexuari zein bizitzari berari buruzko gogoetak pizteaz gain, liburu horrek ere badu misterio bat, azkenera arte argituko ez dena. Gazteek, batez ere, gustura irakurriko duten liburua idatzi du Fernando Morillok.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Endika Uribarren
25ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Conrado Paul
29an. Zorionak etxeko eta batez ere Anne eta Marijen partetik.



ARETXABALETA
Ander Ibañez
30ean, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Lide Arenaza
31n, 10 urte. Zorionak! Lore, Leire, Ainhoa eta Idoia.



ARETXABALETA
Amaia Berezibar
1ean. Zorionak, ARETXAGAZETAko langileen eta batzordekideen partetik.



ARETXABALETA
Jokin Altuna
2an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Pako Miguel
4an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!
Foto
Urkiola
Argazkidenda
HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!!

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

IBARRA
estankoa


PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Ezaguketan dozu 'Shin Chan'? Egitten dittuenetatik ze gustetan jatzu gehixen?



IÑAKI CARRILLO
5 urte




UXUE BAZTERRIKA
6 urte



OLATZ ROMEO
8 urte



OIER MONDRAGÓN
10 urte



BEÑAT ITURBE
12 urte



AINHOA CARRASCO
13 urte

Bai, aspaldittik ikusten dot eta asko gustetan jat. Egitten dittuen tontokerixe danak gustetan jat, batez be, pitiliñe erakustie. Ama asko hasarreketan da harekin, oker xamarra da-eta.

Baaaiiii! Eta asko gustetan jat. Atsaldetan ikusten dot eta eguerdi batzuetan be bai. Barregarrix da benetan, tontokerixe pilla bat egitten dittuelako. Abesti-xe be buruz dakit.

Bai, badakit zein dan, eta ahal doten danetan ikusten dot. *Shinnosuke*-k egitten dittuen tontokerixe danak gustetan jat: ipurdi-xe erakutsi, amatxokin txarto portau...

Bai, badakit zein dan arratsaldero ikusten dot-eta, bost urteko arrebekin batera. Pitiliñe erakustie gustetan jako eta nik be barre galantak egitten dittut hori egitten dauenien.

Bai, eguerdixetan eta arratsaldietan ikusten dot. Dana da politte: dauken berba egitteko modue, egitten dittuen tontokerixek... Personaje gehixenen izenak be ikesi dittut.

Bai, ikusten dot. Anaiari eta amari be gustetan jakue, hirurok ikusten dogu. Oso dibertigarrix da, batez be, ama hasarreketan jakonien eta tontokerixek egiten dittuenien.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KABINA APURTUTA Gaueko giroak, alkoholak eta gorputzari sartzen dizkiogun beste litxarrerria batzuek tontokeriak egitera bultzatzuten gaituzte. Oraingoan, telefono kabina bat apurtu dute. Ez dakit protesta egiteko asmorik zuten, baina lurrean dagoen botila ikusita ezetz esango nuke. Neur ditzagun gure ekintzak eta tamain ibili, gero ezusteko ondorioz izan ez dezagun. /M.A.

ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /4

ASTEAN BEHIN /5

KIROLAK /6

Jokin Antxia

Atzegiko Deba-goieneko ardura-dun berria da. Karguak beste ardura batzuk ekarri dizkio.

Galartzako eliza berritzen

Galartza auzoko Santa Luzia eliza zaharberritzen hasi dira. Lanak bukatzean, elizpea itxi egingo dute.

Asier Atxa

Gipuzkoako 23 urte aspikoen txapeldun da, Bergaran orain bi aste egin zen lasterke-ta irabazi ostean.

ASTEKO DATUA

14

FAMILIA DAUDE HERRIKO ARATZ TALDEAN

Aretxabaletako atzeratuen taldean, Aratzen, 14 familia dabil-tza lanean. Lauzpabost ekintza egiten dituzte urtean eta oso erantzun ona izan ohi dute. Laster, gainera, txoko berria izango dute.

BESTEKEKESANA

“ Nik lehengo bizimodua egiten jarraituko dut. Urtea beteta dauka-gu, Naranja de Buln-sen, Kenia Mendan

eta Kilimanjaron izango gara grabatzen eta neguko igoera seguru asko Cho Oyu-ra izango da. Ahal bezain ondo erantzuten saiatuko gara eta lanean jarraituko dugu. Urte bukaeratik aurrera lasaiago ibiltzea gurako nuke, eta horrela etxekoek ere lasaitasun bat hartuko dute.

Zergatik igotzen garen mendietara? Zerrenda luzea izango litzate-ke. Nik uste denok arrazoi berberengatik igotzen ditugula, nahiz eta gero arrazoi batzuek pisu handiagoa izan. Harrokeriagatik, gaintze na-hia dela-eta, beste aldean zer da-goen jakiteagatik, hargatik... Ez da-kit hobeto ezagutzen zarelako, zure bizitza delako. Zerrenda luzea da.

ALBERTO IÑURRATEGI
'El Diario Vasco' egunkaria/02-05-20

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Azterketak

G arai txarra dou hau ikasliondako, hilebete-ko tartien hor ibili biheko gare dakigune eta jakin biheko geukiena papel zuri batzun gainien erakusten.

Beti esaten da ikasle bizimodue dala onena eta aprobe txau ein bihe dala, baine oin momentuen hori galdetuko balitz ikaslien artien, ez litzake holako esaldirik entzungo. Bederatzi hilabete-tik bi, behintzet, nahiko enbutu estuen sartute pasetan ditugu holako frogak diela eta, eta hauxe da bat. Zelako ona dan jakin gure dauenak hartu daixela errele-bue.

Liburutegixek toperaino beteta daz. Urtien ziherr agiri ez dien aurpegixek ikusten die oin. Nahiko urdurixek, ez daue irribarre gozorik edukiten. Batzuk gurago izeten daue liburutegixen, eta beste batzuk barriz, etxien. Hor be, norberak daki onduen zein dan beretako egokixena.

Beti esaten duskue azken

momentureko dana itxi barik poliki-poliki eginaz fan bihe dala, baine hori beteten dauenak gutxi die. Batzuetan ondo etortzen da zezenai adarretatik obaketie, baine sarriten azpizen zapalketan gaitu. Egunen baten ikesiko dou, eta hartuko dutzoi neurrix.

Selektibidadie egingo daueinak aurtien izengo die azkenak. Aurtenguek agur esango dutzie, hurrenguek ongiatorrixegiteko datorrenai. Etorriko dana be oinguen antzekue edo okerrae izengo da, ikasliei ez dutzo

bentaja gehixaurik ekarriko. Izena aldatuko dutzie, baine azkenien bardine izengo da. Garbi dau lehenguek hau ezagutu euiela, guk hau bai, eta seguruena hurrenguek be antzeko zeezer.

Besterik barik, nahiz eta geure onenien ez gazen, onena emun deigun gero uda luzie edukiteko. Animo ikasten jardungo douen danoi eta udan ondo pasetan saiatu! Jaixek ondio ez die agortu eta!

“Bederatzi hilabete-tik bi, behintzet, nahiko enbutu estuen sartute pasetan ditugu holako frogak diela eta”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritza
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Ezagunen
pupurria

Azken egunotan guztion ahotan dabilen izena da **Alberto Iñurrategirena**. Martitzenean *Sorginen Laratza* programan izan zen. Zein ondo moldatzen den mutil hau kamera aurrean, mendian bezain ondo. Herrietik urrunago bizi diren beste bi lagun ere ondo moldatzen dira jendaurrean. **Sustrai** eta **Amets** bertsolariak gustura egon ziren gurean. Euskararen Egunean bertso saioa eskaini zuten. Baina gero baba-janera ere gelditu ziren. Ez zuten ez joateko presa handirik, gustura zeuden seinale. Ni neu ere gustura egon nintzen euren bertsoak entzuten.

Gustura ibili ziren beste batzuk **Ramon Eraña**, **Iñigo Olabe** eta **Eskibel** izan ziren. Aurreko zapatuan Baionan **Manolo García de Andoín** dantza erakusle gasteiztarra omendu zuten. Aretxabaletarrak Loramendi Dantza Taldearen izenean joan ziren ekitaldira. Gogoratu Manolo Gasteiztik dantza erakustera etortzen zela Aretxabaleta eta Aramaiora. Orduetik pasatu da gero denbora, 1966 eta 1969 urteetan zehar izan baitzen hori. Ai, ama! Noizko kontuetaz ari naizen. Urteak ez direla alperrik pasatzen.

Bukatzeko, ez ahaztu bi aste barru mendiko martxa egingo dela. Ni hantxe izango naiz. Dena dela, oraindik gehiago entrenatu behar dut, eta banoa.

ELKARRIZKETA

JOKIN ANTIXIA/ATZEGIKO DEBAGOIENÉKO ARDURADUNA

“Kanpoko atzeratuei herriko kontuen berri ematen lagundu beharko diegu herritarrok”

MIRARI ALTUBE

Aztegiko Debagoieneko arduradun izendatu berri dute. Urte askoan izan da Aretxabaletako atzeratuen taldeko ordezkari eta orain, ardura handiago hartu du. Hala ere, ez da beldurtu Jokin, lantaldea ezagutzen du-eta.

Zeintzuk izango dira zure ardurak aurrerantzean?


Atzegik daukan Batzorde Orokorrean parte hartu beharko dut. Gipuzkoa hamar eskualdetan banatuta dauka Atzegik, eta Batzorde Orokorrean arduradun guztiok batzen gara presidentearekin eta hainbat teknikarirekin batera. Batzorde horretan hartzen diren erabakien berri hemengo herrietako ordezkariari eman beharko dizkiet eta, era berean, hemengo kezkak Donostiara erango ditut.

Lehen, Aretxabaletako Aratz taldeko ordezkaria zinen...

Bai, zazpi urtean izan naiz, eta horregatik ez nau beldurtzen ardura berriak. Eskuáldeko taldea ondo ezagutzen dut, lan egiteko gogoa duen taldea da, oso talde orekatua eta alai, eta oso gustura egiten dugu lan.

Zein da Atzegiren lana?

Atzeratu psikikoen elkarte da. Orain dela 42 urte sortu zuten eta poliki-poliki haziz joan da. Une honetan, atzeratuak dituzten ia 2.000 familia batzen ditu, diruz laguntzen duten 3.000 bazkide eta beste horrenbeste Atzegizale. Atzegik, batetik, elkarte lana egiten du, eta familiekin harreman estua izateari garrantzi handia ematen dio. Bestetik, atzeratuendako zerbitzuak ematen ditu: Gureak lantegiak; Txolarteak, aisialdirako taldeak; Uliazpi Fundazioa, atzerapen handiak dituztenendako; atzeratuendako etxebizitzak; eta orain, eguneko zentroak zabaltzen hasi da. Atzegiren azken lana kontzientziatze



AMAGOIA LASAGABASTER

“Aretxabaleta, kontzientzia lanari dagokionez, oso eredu ona da Gipuzkoan”

lana da, herritarrek Atzegizale izatera bultzatzea, hain zuzen.

Azken kanpaina ere ildo horretatik doa?

Bai, kontzientziatze lana oso motela izaten da, astia behar da emaitzak ikusteko. Aretxabaleta, esaterako, kontzientziatze lanari dagokionez, oso eredu ona da

“Laster, Aratzeko txoko berria izango du, geurea, eta horrek indarra emango digu”

Gipuzkoan, atzeratuak erabat onartuta daude-eta herrian.

Zer moduz funtzionatzen du Aratzeko?

Ondo, beti berberak gabiltza taldean atzera eta aurrera, baina oso gustura. Laster, gainera, txoko berria izango dugu, geurea, eta horrek indarra emango digu ekin-

tzak antolatzeke orduan eta aurrera begira lanean jarraitzeko.

Durana 13ko etxea ere aurrera doa...

Bai, etxea bukatuta dago eta orain jantzen ari dira. Urri ingururako lau lagun biziko dira hantxe. Donostian taldea osatu guran dabilta, modulu bat ahal den lasterren jartzeko abian.

Aretxabaletarrik egongo da hantxe...

Bai, zergatik ez? Ez dakit aretxabaletarrek izenik eman duten etxe horretan bizi izateko, baina emanez gero, egon daitezke. Debagoieneko jendea egotea espero dugu.

Zer ekarriko dio etxe horrek Aretxabaletari?

Apustu handia izan da Aretxabaleta erdi-erdian, eta ez herrietik kanpo ghetto baten, atzeratuendako etxea izatea. Aratzeko ok geure ardurak izango ditugu, baina aretxabaletarrek ere izango dute lana. Inguruko herrietatik etorriko diren atzeratuek ez dute herria ezagutuko, eta herriaren berri ematen eta herriko kontuetan barneratzen lagundu beharko diegu. Ez dira lan handiak izango: kirol etxea non dagoen erakutsi eta gura badute bazkide egiten lagundu, noizbehinka eurekin kafea hartzera etorri... Horren gaineko hainbat kanpaina egingo ditugu herrian ordua heltzen denean.

Azkenaldian Atzegik zerbitzu ugari jarri ditu abian Debagoiengan, ez?

Bai. Ibar hau ahaztuta izan dute urte askoan, beste zerbitzu batzuk emateko orduan moduan, baina azken urtea oso polita izan da. Iaz, Txolarte, aisialdirako gunea, zabaldu genuen Bergaran. aurten, Gureak lantegia abian jarri dugu; eguneko zentroa ere jarriko dugu; udazkenean, Aretxabaletako etxebizitza ere abian egongo da... Denon laguntzarekin atzeratuak ere eguneroko bizitzan ondo moldatzen direla erakustea tokatzen zaigu orain.

Lubia

oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

ZAHARBERRITZE LANAK / Orain dela lau urte, kanpoko aldea konpondu zuten

Galartzako eliza eta elizpea zaharberritzen hasi dira

MIRARI ALTUBE


Orain dela lau urte, Galartzako Santa Luzia elizako kanpoko aldea konpondu zuten. Orain dela aste bi inguru, berriz, barruko aldea hasi ziren zaharberritzen. Uztaila bitartean iraungo dute lanek; berritze lanez gain, elizpea itxi egingo dute, burdinazko ate bi jarrita.

Galartzako Santa Luzia eliza itxita dago, orain dela aste bi zaharberritze lanak hasi zituzten-eta. Lanek ez dute askorik iraungo, uztaile erdi inguru arte-edo. Eta bien bitartean, Galartzan meza esatea tokatzen den hilabetean Gellaon esango dute.

ELIZPEA, ZIKINKERIAZ BETETA

Duela lau urte egindako lanak hasi berri dituzten horiekin osatuko dituzte. Barruko aldea txukunduko dute oraingoan; horretarako, elektrizitate sarea egokitu gura dute, bai eta hormak berdindu eta margotu ere. Egurra ondo dagoen lekuan, berriz, bistaratu egingo dute eta harlandua agertzen den lekuan ere gaineko margoa kendu eta kanporatu egingo dute.

Elizpea ere txukunduko dute: egurra bistaratuko dute eta burdinazko ate bi jarriko dituzte, inor sar ez dadin. Joxe Olabe zaharberritze lanen arduradunaren esanetan, "gazte koadrilek hara joateko ohitura hartu dute eta zikinkeriaz beteta egoten da elizpea. Edozer aurkitzen dugu: kondoiak, xiringak, kaka, ontziak... Sua ere egin izan dute ur bedeinkatua egoten den pontean. Ez du merezi elizpea konpontzerik, gero ez badute itxi behar". Udalak ixteko baimena eman du, eta lanak bukatu ostean burdinazko ate bi jarriko dituzte sarreran. Joxek ez du gura izan



MIRARI ALTUBE

Hormak margotu egingo dituzte eta ondo dagoen egurra bistaratu egingo dute.

diruaren gainean berbarik egin; edozelan ere, 30 mila euro inguruko kostua izango dute lanok.

DATU HISTORIKOAK

Zaharberritze lanak bukatu ostean, beste eliza batzuekin egin den moduan, Galartzako Santa Luzia elizaren gaineko orritxo ateraiko du Aitor Antxia Leturiak. Aitor Antxiaren esanetan, ez dakite Galartzako eliza noiz eraiki zuten, baina, seguru asko, dorretxera atxikita zegoen ermita izango zen hasieran. Dokumentuetan topatu duten aipamen zaharrena 1500. urtekoa da.

XVIII. mendean, hainbat lan egin zituzten: elizako horma bota eta sakristia berria eraiki zuen Galartzako harginak; abadetxea eta aldea kokatzen den lekua ere orduantxe eraiki zituzten. Elizaren erdian eta alboetan dauden erretaulak, berriz, mende bukaeran egin eta jarri zituzten. Urte batzuk geroago, XIX. hasieran, elizako hormak zabaldu eta gaur egun dagoen Kristoa jarri zuten. Bestalde, aldare nagusian dagoen Santa Luziaren irudia eta XV. mendeko elizako sarrera ere ezin dira aipatu barik utzi, horiek ere garrantzitsuak dira-eta.

LABUR

PSE-EEK eta Batasunak aurkeztutako mozio bana onartu zituzten asteleheneko bilkuran

Mozio bi aztertu zituen udalbatzak astelehenean egindako ohiko bilkuran. PSE-EEK bere egoitzaren kontra izandako eraso sala-tzen zuen mozioa aurkeztu zuen, eta PPko eta PSE-EEKo aldeko botoekin onartu zuten. Batasunak, berriz, Alderdien Legearen kontrako mozioa aurkeztu zuen. Batasuneko aldeko botoei EAJ-EAko beste lau gehitu zitzaizkien eta onartu egin zuten hori ere.

Tokiko Agenda 21ean sartzeko Udalak emango dituen pausoak azaldu zituzten martitzenean

Asteleheneko osoko bilkuran ingurumenari dagokion gai bat ere onartu zuten, Alborgh-eko Gutuna, hain zuzen. Horren arabera, Aretxabaletako Udala ere Tokiko Agenda 21ean sartzeko pausoak ematen hasiko da, eta horixe azaldu zuten Xabier Etxebarrieta Ingurumen zinegotziak eta 4-R fundazioko kide batek martitzenean egindako hitzaldian. Oso jende gutxi egon zen hitzaldian.


TXUTXUMUTXUA



Euskara ahoan, jai giro polita zapatuan

Eguraldia lagun, jai giro polita egon zen zapatuan. Goizean, bertsolariek piztu zuten ikusmina eta interesa, gazteak eta jatorrak zirelako, beharbada. Eguerdian, berriz, babarrunen usain goxoak jende dezente erakarri zuen plazara: umeak, gazteak eta nagusiak batu ziren, guztira, ia berrehun. Arratsaldeko lehenengo orduetan, umeak izan ziren protagonista, titiriteroek aho zabalik utzi zituzten-eta. Bukatzeko, dantza eta musika izan ziren kaleetan, gazteen gozagarrirako. /M. A.

Aldez aurretik
deitu!



Zenbaki


Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABAETA
Tel.: 943 71 21 12 • Faxe: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



ASIER ATXA/OLARRA-CONSULTEC TALDEKO TXIRRINDULARIA

"Amateur mailan ez dut uste sei urte baino gehiago egingo ditudanik"

MIRARI ALTUBE

Lau urte daramatza amateur mailan. Lehenengo biak Ulma-Cegasan egin zituen eta beste biak, Olarra-Consultec taldean. Orain dela aste bi Bergarako Mendekoste saria irabazi ostean, 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelduna da. Orain, Nafarroako Itzulian dabil, daukan onena eman guran.

Ulma-Cegasa taldetik Olarra-Consultec taldera. Zergatik?


Gazte mailatik amateur mailara salto handia dago, hortaz, geuretako egokitutako taldea egin ziguten Ulma-Cegasan. Lehen urtea maila berrira egokitzeko urtea izan zen eta bigarrenan nahiko indartsu ibili ginenez, hainbatek beste talde batzuen proposamenak jaso genituen.

Zer moduz Bizkaiko Olarra-Consultec taldean?

Gustura, talde indartsua da eta giro ona da nagusi. Talde indartsua denez, gertatu izan zaigu helmugan taldeko lau edo bost txirrindulari geure artean borrokan ibiltzea, eta orduan norberak bere ari begiratu behar dio. Hortaz, lagunak bai, baina geure artean ere badago konpetentzia.

Orain dela aste bi Bergaran irabazi zenuen eta Gipuzkoako txapelduna zara. Denboraldi ona egiten zabilta?

Bai, hasieratik indartsu ibili naiz, baina zorte txarra dela-eta



MIRARI ALTUBE

gipuzkoarrok bakarrik hartu genuelako parte, eta entzute handikoa, Gipuzkoako txapelketa jokatu zelako, eta irabazi egin nuen.

Zapatuan Erandion izan zinen Txuma Memorialean. Zer moduz?

Nahiko ondo. Maila altua egon zen, hemengo txirrindulariez gain atzerritarrek ere izan zirelako. Ihes egindako taldetxo ezin izan genuen harrapatu eta seigarren sartu nintzen, neure taldean bigarrena.

Orain, Nafarroako Itzulira zoaz...

Bai, martitzenean hasi eta domekara bitartean Nafarroan izango naiz. Orain, oso ondo nago, eta hori aprobetxatu gura dut Nafarroako Itzulian zerbait egiteko. Ea irabazterik daukadan etapa lauetan. Bukatu ostean, eta udako lasterketatan hasi aurretik, atsedean hartu gurako nuke, oraindik asko falta da-eta denboraldia bukatzeko.

Datorren urteari begira, non ikusten duzu zeure burua?

Datorren urtean, 23 urte izango ditut eta elite mailan sartuko naiz. Lasterketa batzuk irabazi gurako nitzuke eta ea profesional-tara salto egiterik daukadan. Ez da samurra izango, norberaren errendimenduz gain, faktore asko hartzen dira-eta kontuan, tartean, *entxufeak*. Dena dela, ez dut uste amateur mailan sei urte baino gehiago egingo ditudanik, urte batetik bestera gehiago eskatzen zaio-eta txirrindulariari.

"Orain, oso ondo nago, eta hori aprobetxatu gura dut Nafarroako Itzulian zerbait egiteko"

errendimendu onari ezin nion bukaera onik eman. Bergarako lasterketa samurra izan zen,

PILOTA

Herriko bikote bi, zapatuan jokatu den alebinen Pilota Txapelketako finalean

Bihar, zapatua, 16:00etan jokatu da Debagoieneko alebinen Pilota Txapelketako finala Iturrigorri frontoian. Aretxabaletako bikote bi ibiliko dira norgehiagokan: Joseba Akizu eta Aitor Uribarren, Beñat Etxaberen eta Ibai Agirreurretaren aurka. Hortaz, txapela herrian geratu den zalantzarik ez dago. Benjaminen mailan, berriz, bederatzi eta hamar urteko gaztetxoaren artean, ez da aretxabaletarrik egongo finalean.

TRIALSINA

Markel Uriarte bigarren sailkatu zen Oñatin jokatu zen Trialsin Txapelketan

Domekan jokatu zen Zona Norte deritzan txapelketarako puntuagarria den Oñatiko Trialsin Txapelketa. Parte hartzaileen artean, Markel Uriarte aretxabaletarra egon zen, eta alebinen mailan bigarren izan zen Markel. Lizarran jokatu den txapelketan ere bigarren sailkatu zen; hortaz, ez dabil batere gaizki Markel. Hamabost egun barru Irunen izango da, eta uztailean bukatuko da Zona Norte Txapelketa, Asturiasen jokatu duen probarekin.

FUTBOLA

Hamabigarren postuan bukatu du denboraldia UDAko preferenteko taldeak

Domekan bukatu zuen preferenteko taldeak denboraldia, Mundarro taldeari 5-1 irabazita. Denboraldi hasieran oso ondo ibili zen, baina azkenean hamabigarren postuan bukatu du UDAk. Denboraldiak aurrera egin ahala hainbat jokalariren hutsunea nabaritu zuen taldeak, eta ezin izan zien aurreko postuei eutsi. Azken bi denboraldietan Enrique Nieto ibili da entrenatzaile lanetan, baina domekan, agur esan zien taldeari eta jarraitzaileei.

ARETO FUTBOLA

Zapatuan jokatu da Arlutz osteko kantxan jokatzeko ari den areto futboleko finala

Euskararen Eguna dela-eta astebete atzeratu ostean, zapatuan, ekainaren lehen, jokatu da Arlutz osteko kantxan areto futboleko finala. Peña Hugo eta MCM talde aretxabaletarrek izango dira aurrez aurre final handian.

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Jon Díaz

Karakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



LURRINGEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Iber


★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

ARETXABALETARRAK MUNDUAN

EKAITZ URIBE

26 URTE / IKASLEA / HOLANDA

“Atzerrian, momentu onak oso onak dira; txarrak, berriz, oso txarrak”

AMAGIOIA LASAGABASTER

Bizitzan aldaketa bat egiteko beharra sentitu zuen Ekaitz Uribek. Beste bizimodu bat hasteko gogoia zeukan, eta horrela, beste barik, Holandara joan zen. Erabaki hori hartu zuenetik hona, zazpi hilabete baino gehiago pasatu dira, eta gaur egun, Ekaitz pozik bizi da Holandako Tilburg hirian.

Ekaitz Holandara joan aurretik, zazpi urtean Donostian bizi izan zen. Orduan ikasi zuen etxetik kanpoko bizimodua zelakoa den. “Donostian hasi nituen Arkitektura ikasketak, eta orain, azken ikasurtea Holandan nabil egiten. Badakit zer den etxetik kanpo bizi izatea, baina horren urrun ez naiz sekula egon”.

Bizimodu lasaia darama Ekaitzek Tilburgen. Hori bai, eguneroko martxa, atzerrian egonez gero, oso bestelakoa dela esan digu. “Ez dut gauza berezirik egiten, baina hemen, gauza txikiak ere beti izan ohi dira bereziki. Momentu onak oso


onak izaten dira atzerrian; txarrak, berriz, oso txarrak. Edozelan ere, badakit zorionekoa naizela, eta ez nuke ezergatik aldatuko bizi izaten nabilen esperientzia”.

“Badakit zer den etxetik kanpo bizi izatea, baina horren urrun ez naiz sekula egon”

Uztailean, edo beharbada irail amaieran, bueltatuko da Ekaitz Aretxabaletara. Ordu arte, atzerriko bizimodua ondo baino hobeto aprobetxatzen ahaleginduko da. Izan ere, badaki bueltatzean herrian zer aurkituko duen: “Nik ez nuke Tilburg nire herriagatik aldatuko; hala ere, Aretxabaletan monotonía da nagusi. Badakit oso erosoa dela kanpoan nagoela kexatzea. Gainera, herrira bueltatzean ziur nago ez dudala arazo horri irtenbidea topatzeko ezer egingo; hortaz, hobe isilik egotea...”



HURRETIK



Oier Sarasua

Txalaparta irakasle

Oier Sarasua, Aitor Ziardegi lagunakin batera, herriko kuadrilla bati txalapartie jotzen erakusten dabil. Ez dakigu irakasle ona dan, baiñe musika ikasle aparta dala, behintzet, badakigu.

Zuk zela ikesi zeuen txalapartie jotzen? Aretxabaletan oin dala bost urte inguru egindako ikastaro baten ikesi neuen.
Ze biher da txalapartie ondo joteko? Lelengo, txalapartie. (Barriek). Bromak aparte, erritmuen zentzue biher da eta, era berien, lan haundixe egiteko gogoe.
Txalapartie ez da jaixetan eta omenaldixetan bakarrik jotzen dan instrumentue?

Bai. Perkusiñue da, normala da beste instrumento batzuk baiñe gutxiago entzute. Hala eta be, gero eta gehiago entzuten da gaurko musikan. Tradiziñuek gorde egin biher die, baiñe aurrerapausuek emutie be inportantie da.

Ze moduzkuek die zure ikasliek? Aurten, onak. Batzuek segiduen hartu daue txalapartien oinarrixe.

Txalapartiaz aparte, beste instrumentorik jotzen dozu?

Gitarrie eta perkusiñozko instrumento asko.

Bat aukeraketakotan?

Gitarrie, duda barik.

Ze da musikie zuretako?

Babesa, komunikaziñue, sentimendue...
Jatetxe batetik pozik urteteko moduko menue?

Baba platokada edar bat, ardau onakin eta zigarrotxo batekin.

Mendi martxan ala triatloien, nun parte hartuko zeuke?

Mendi martxan, triatloirako ez dauket sasoirik.

Aurtengo oporretan nora fango zitzake gustora?

Guatemalako basora.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Miriam Urkia

Jamaika / 1998ko abuztuan

Abuztuko oporrak aukeratu zituen Miriamek Jamaikara joateko. Bob Marley eta reggae musika gustuko dituen edozeinendako, Jamaikara joatea ezinbestekoa ei da, eta halaxe egin zuen Miriamek. Hamabi egun pasatu zituen uharte txiki hartan, beste lagun batekin batera, eta gero Kubara joan ziren. Kuban hogeitun egun pasatu zituzten.

Joan-etorriko hegazkin txartela eskuan eta motxila bizkarrean hartuta abiatu ziren Jamaikarantz. Ez zuten, ordea, bidaiaren data nolanañi aukeratu, Montego Bayn egiten den Udako Reggae Jaialdian parte hartzea zuten-eta helburu. “Karibeko uharte batera gindoazela jakinda, hondartza ikaragarriak aurkitzea espero genuen, baina ez zen horrela izan. Ur ertzeraino iristen den landaretzaz jositako herrialde berde hura sorpresa itzela izan zen, erreka eta ur-jauzi pila batekin, eta mendia... Uharte txiki bezain osoa deskubritu genuen”, dio Miriamek.

Montego Bay ingurua luzuzko hotelez beteta egotea ez zitzaion batere gustatu, tristatu egin zuen estatubatuarrek bereganatuta dutela ikusteak. Herriarren artean, oster, gustura moldatu zen: “Hasieran, hotzak ziruditen, oso ozen berba egiten ziguten-eta, batez ere, gizonek; baina gero oso jende jatorra topatu genuen. Rastafariak, euren bizitzaren filosofia... guztiz berria izan zen”.

Garraio publikoan ibiltzea ere abentura itzela zela dio Miriamek: “Jendez gainezka joaten ziren furgonetak hartzen genituen, oso giro atsegina egoten zen, eta baldintza nagusia zen reggae musika ozen baino ozenago ipintzea”.

Blue Mountains-etan egun batzuk pasatu ez izanaren penaz bueltatu zen Miriam. Munduko kaferik onena sortzen ei da mendi horietan, eta oso itxura lasaia zuten.



“Landaretzaz jositako uharte hura sorpresa itzela izan zen”

“Furgonetan, baldintza zen reggaea ozen baino ozenago ipintzea”

MIRARI ALTUBE



Rastafarien bizitzaren filosofiak harrিতuta utzi zuen Miriam.

OPEL

OPEL VECTRA BERRIA
Balio pertsonalak garaile

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**





Eskoriatzako

6.

ferixie

Ekainak 1

ANTOLATZAILEA



Arizmendi

ikastola

Jose Arana gunea

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31 / 82. zenbakia



Eskoriatzako VI. Ferixie

Baserritarren eta
artisauen ferixan ia
ehun postu ikusgai

KIROLAK: EUSKAL LIGARA SALTOA/13 • LEINTZ GATZAGA: MATILDE ARRESE/14

Urterik urte haziz doan Ferixiek seigarren aldia beteko du bihar

AINTZANE GARDOKI

Baserritarren eta artisauen topaleku bihurtuko da bihar Eskoriatza. Duela sei urte Jose Arana Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko asmoarekin egin zuten feria txikia -13 postu orduan- atzean geratu da; izan ere, bihar, ia 100 baserritar eta artisau izango dira herrian.

Etxafuegoen eta txistuen soinuekin esnatuko da bihar Eskoriatza. Ordurako dena egongo da gertu. Artisauak eta baserritarak euren postuetan dituzten animaliak, jakiak eta artisautzako produkturik onenak jarzen ibiliko dira, eta gero, 10:30ean, aurtengo VI. Ferixie zabalduko dute.

Ia 100 postu egongo dira aurtengo ferian. Biharko feria bost atal nagusitan bereiztu dute ikas-

tolako antolatzaileek: baserritarren produktuak eta elikagaiak; artisauak; baserriko tresneria; umeendako egiten dituzten txokoak; eta animalien txokoa. Animaliei dagokienez, gainera, urtero izaten da ezustekoren bat; eta bihar ere, umeen gozamenerako, gehienbat, kanguruak eta mapatxeak, besteak beste, ikusteko aukera egongo da.

Herriko nahiz kanpotik etorritako umeek eta gaztetxoek izango dute zer ikusi eta zer egin. Gaztetxoek, gainera, hainbat produktu egiten dituzte gero ferian saltzeko. Txikienak, ardurak alde batera utzita, euren izango diren lantegietan eta txokoetan ibiliko dira, gelditu barik. Beste 130 lagun ere, nagusiagoak horiek, gelditu barik ibiliko dira, VI. Ferixien ezer falta ez dadin.

ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA



IBAR OSOKO JENDEA. Lehenengo aldiz Jose Arana Ikastolak feria txiki bat egitea pentsatu zuenean, herriko 13 baserritarrek hartu zuten parte, etxean zituzten gauzarik onenak kalera jaitzita. Orduan,

eskoriatzarrak izan ziren protagonista bakarrak. Geroztik, berriz, kanpoko jende asko, ibar osotik etorritakoak, batzen du Eskoriatzako Ferixiek. Bi har ere horrela izango delakoan daude antolatzaileak.

EGITARAUA

- 09:00** Etxafuego jaurtiketa.
- 09:30** Txistularien kalejira.
- 10:30** VI. Ferixaren hasiera: baserriko produktuak, elikagaiak, abereak, artisautza eta tresneria egongo da ikusgai.
- 11:00-13:00** Umeen txokoak: hankapalu lantegiak, eskulan lantegiak, puzgarriak.
- 11:30** V. Txorimalo Lehiaketa, (4 eta 99 urte bitarteko umeendako).
- 11:30** Trikitilarietako kalejira.
- 12:30** Txalaparta emanaldia eta Atxondoko Andasto dantza taldearen dantza saioa.
- 13:30** Sari banaketa. Zozketa.
- 14:30** VI. Ferixaren amaiera.
- 15:00** Herri bazkaria.



V. TXORIMALO LEHIAKETA. 4 eta 99 urte bitarteko ume guztiek hartu ahal izango dute parte. Guztira, 30 talde ibiliko dira txorimalo dotoreak egiten.



ASKOTARIKO PRODUKTUAK. Ferixie ikusi eta talo goxoak jan nahi dituenak ere izango du aukera. Gainera, talogintza ikastaroa egin dute askok.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33
Aretxabaleta

Aranburuzabala 7
Tel.: 943 71 49 04
Eskoriatza



UMEEK, PROTAGONISMO HANDIA. Almengo ikasleek orduak ematen dituzte produktuak egiten, gero ferian saltzeko. Batzuek egindakoa saltzen duten bitartean, txikienek, batez ere, jolaserako asti luzeagoa izaten dute. Eskulan lantegiak, aurpegiak margotzekoak, puzgarriak eta jolaserako aukera ugari izango da Eskoriatzako kaleetan.



HERRI BAZKARIA. 400 lagun inguru batuko dira feria itxi eta gero. Eguerdian bapo bazkaldu bai, baina atsedenaldirako ia denborarik eduki barik, herria txukun eta garbi uzteko lanari ekingo diote.



KANGURUAK ETA MAPATXEAK. Era askotako animaliak egon dira aurreko urteetan ferian: zaldiak, astoak, ardiak, emuak eta era askotako ugaztun eta hegaztiak, batez ere. Bihar, eta Arrigorriagako baserri batetik ekarrita, kanguruak eta mapatxeak ikusteko aukera egongo da, beste batzuen artean.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure Zerbitzura

TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.
ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 83 64



Akeita taberna

PINTXOAK ETA OGITARTEKOAK

Ferixie ospatzera zatoz gugana!



SANTANA, 23
TEL: 943 71 50 94
ESKORLATZA

ROSA ELIZBURU/JOSE ARANA IKASTOLA

“Eskoriatzaren izena, urtean egun batez, Euskal Herri osora zabaltzea izango litzateke nire nahia”

MAIDER HERCE/AINTZANE GARDOKI

Arduradunen esanetan, ez da erraza izaten feria eguna antolatzea, baina aurten ere 130 herritarren laguntzak posible egingo du VI. Ferixie egitea. Bihar, goizean hasi eta eguerdira bitartean, ia 100 postu izango dira ikusgai.

Zergatik egiten da Ferixie?

Duela sei urte, ikastolaren 25. urtemuga ospatzeko hainbat gauza aztertzen ibili ondoren, herrian feriarik ez zegoela eta animatu egin ginen. Euskal giroa eta tradizioa bultzatuko zituen zerbait genuen helburu.

Orduan, euskal kultura herrian bultzatzea duzue helburu?

Hori da ikastolan daukagun helburua, umeari heziketa euskalduna ematea. Feriak euskal giroa, euskal kultura eta tradizioa bultzatzen ditu eta ez da gure umendako bakarrik egiten dugun zerbait; herriko ume eta nagusi guztiendako pentsatuta dago feria. **Elizateetako auzokideak, egun batez, behintzat, kalean protagonista izatea ere nahi izan duzue.**

Lehenengo ferian 13 postu egon ziren, denak herriko baserritarrenak. Oraindik ere ahalegin-tzen gara horretan, baina feriak bolumen handia hartu du eta kanpoko jende asko ere etortzen da. **Eta zer ematen dio feriak Eskoriatzari?**

Batetik, herritarrei aukera ezin hobe ematen die batzeko eta elkarrekin, euskal giroan, jaiegun bat pasatzeko; eta, bestetik, feria hazi ahala, prestigio apur bat ere eman-gio Eskoriatzari.

Eta ikastolari zer ematen dio? Lehen esan dudanez, guk hezitzaile moduan ditugun helburuak



AINTZANE GARDOKI

“Herritarrei aukera ematen die batzeko eta elkarrekin, euskal giroan, jaiegun bat pasatzeko”

betetzen laguntzen digu. Ikastola herritik sortutako elkarrekin da eta horrelako ekintzekin herritarrak, orokorrean, aberasten gara. Gure izatea indartzen laguntzen digu. **Zer behar da horrelako feria bat**

“Bihar, 130 herritar ibiliko dira goizean goizetik joan-etorrian, ezer falta ez dadin”

antolatzeko? Gabonen inguruan, ikasle ohiekin, gurasoekin eta irakasleekin osatutako taldea lanean hasten da, 15-20 lagun. Egunean bertan eskerrak herritarrek laguntza handia

“Klaratarrei dozenako 13 arrautza eraman dizkiete; eguraldia ziurtatuta daukagu”

eskaintzen diguten; bestela, ezinezkoa da ezer egitea. Bihar, 130 herritar ibiliko dira goizean goizetik joan-etorrian. Batzuek postuak jartzen eta kentzen lagunduko dute, beste batzuk zirkula-

zioaz arduratuko dira, beste asko 400 lagunendako bazkaria zerbitzatzeaz, eta beste batzuk taloak zelan egin ere ikasi dute eta taloak eginen ibiliko dira. Gura duenak badu zertan lagundu!

Eta dirutan zenbat kostatzen da feria antolatzea?

12.000 euro inguru. Kopuru handi bat zozketekin eta taloak saltzarekin ateratzen dugu. Herriko enpresa batzuek ere laguntzen digute. Udalak dirua ematen digu eta azpiegitura eskaintzen digu.

Plazan lanak egiten ari direla eta, non izango da feria?

Feriarren bihotza ikastolaren eta elizaren aurrean kokatuko da, eta Aldatz tabernaraino luzatuko da. Izango diren postu guztiez gainera, herriko beste elkarte batzuek ere txistulariak, trikitilariak eta bandak, esate baterako, izango dute lekua bihar.

Egun erdiko feria izatera ez da hankamotz gelditzen?

Feria finkatzen doan neurrian ikusiko dugu egun osoko azoka egiten animatuko garen edo ez, baina izugarritzko lana eskatzen du horrek. Oraingoan, egun erdikoa egiten jarraituko dugu.

Noraino heldu gura zenukete?

Eskoriatzaren izena, Gipuzkoako bazterrean dagoen herri honen izena, urtean egun batez Euskal Herri osora zabaltzea izango litzateke nire nahia. Amets eginda, Santamasak edo Ordiziako azoka bezain entzutetsua izatea egun batez Eskoriatzako Ferixie.

Zer esango zenieke, feriarren bezperan, ibarreko herritarrei?

Zer ikusi, zer dastatu eta zer erosi izango dutela Eskoriatzako Ferixien, etortzeko! Gainera, fede handiarekin, moja klaratarrei dozenako hamahiru arrautza eraman dizkiete. Hortaz, eguraldia ere ziurtatuta daukagu!

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer ematen dio Ferixiek herriari?



JASONE ORBEGOZO
Langilea

Bizitasuna ematen dio, gehienbat. Horrez gain, baserri eta kaleko giroak uztartzen dira eta hori oso aberasgarria da. Bide batez, Eskoriatza ezagutzera emateko bide ona da.



IÑAKI OIANGUREN
Ikaslea eta langilea

Egun polita izaten da, nire ustez. Garrantzitsuena da egun horretan herriko gazte eta zaharrak elkartu egiten garela. Jaiegun garrantzitsu bilakatzen ari da azken urteotan.




ANA ISABEL SANTAMARÍA
Langilea

Egun garrantzitsu dela uste dut. Aurten, lan egingo dut eta ezin izango naiz feria ikustera etorri. Dena dela, eskoriatzarrondako jaiegun hori oso positiboa dela uste dut.



JUAN JOSE AGIRIANO
Langilea

Ferixiek kanpoko jendea erakartzen du eta hori oso onuragarria da herriarentako. Bestalde, aurten, erdiko kaleko lanek feria zertxobait desitxuratuko dutelakoan nago.



RIKARDO SEGURA
Erretiratua

Herrirako onak izaten dira horrelako jaiegunak. Herri txikia izan arren, feria handia egiten da hemen. Ni Zarimutzekoa naiz eta aurten bazkaria daukat, eta ez dakit etorriko naizen.



OIHANA URREZOLA
Ikaslea

Oso ondo pasatzen dut ferian eta, gainera, kanpoko jende asko etortzen da herrira. Aurten, umeen lantegian ibiliko naiz lanean; aurpegiak eta puxikak margotzen ibiliko naiz.

KIROLAK

Areto futboleko Ohorezko Mailako taldea, Euskal Ligara

MIRARI ALTUBE

Zapatuan bukatu zuten Eskoriatza KEko areto futboleko taldeek denboraldia. Aurten Ohorezko Mailan ibili den taldea Euskal Ligara igo da; hortaz, pozarren zeuden bai jokalariek –gorritutako ile eta guzti–, bai entrenatzailea bai eta taldeko jarraitzaileak ere.

Zapatuko partiduak ez zuen garrantzi handirik. Izan ere, aurreko astea ezker zekien Eskoriatza KEko Ohorezko Mailan jokatu duen areto futboleko taldeak Euskal Ligan jokatu duela datorren denboraldian. Hala ere, jarraitzaileei eskerrak eman gura zizkieten eta gogor ibili ziren partidua irabazteko.

ESKERRAK JARRAITZAILEEI

Zapatuan Intxaurtxuetako kiroldegian jokatu zuten partiduan jarraitzaileei eskerrak eman gura izan zizkion taldeak. Edorta Zubizarreta alkatea eta zinegotzi bat baino gehiago ere hurreratu ziren. Gasteizko AD Componentes Neumáticos SMC aurkari gogo-

“Jokalariek, entrenatzaileak eta arduradunak bat eginda egin dute lan, hor dago sekretua”

“Areto futboleko arduradunak orain dela urte bi esan zuen taldea Euskal Ligara igoko zela”

rra izan zen, baina azkenean, 6-5 irabazi zuten eskoriatzarrek, jarraitzaileei esker.

DENBORALDI BIKAINA

Denboraldi bikaina egin du Arabako Ligako Ohorezko Mailan jokatu duen taldeak. Jokalari gazteak ditu Iñaki Corral entre-



MIRARI ALTUBE

Ilea gorritz margotuta azaldu ziren jokalariek zapatuan jokatu zuten denboraldiko azken partiduan.

natzaileak, baina daukaten onena ateratzen jakin du, eta mailako talde osatuena izan da. Bigarren taldeari, esaterako, lau puntu atera dizkio. “Igoera honen sekretua lantaldean datza, jokalariek, entrenatzaileak eta arduradunak bat eginda egin dute eta lan”, dio Manolo Muñoz presi-

denteak. “Areto futboleko arduradunak orain dela urte bi esan zuen taldea Euskal Ligara igoko zela, eta halaxe izan da”.

Manolok badaki datorren denboraldia gogorra izango dela, lehen ere egon zen eta Euskal Ligan talde eskoriatzarra, baina itxaropentsu dago: “Badakigu tal-

de indartsuak daudela Euskal Ligan, baina talde gaztea dauka eta datorren denboraldiari begira itxaropentsu nago. Gogor ahaleginduko gara gero, ez izan zalantzarik”.

Oraingoz, zapatuan, Errioxa aldera joango da areto futboleko taldea igoera ospatzera.

LABUR

Elizateetako auzokideek bazkaria dute

Bihar, zapatua, Marin, Zari-mutz eta Mazmela auzoetako auzokideek bazkaria egingo dute. Aurtengoan, 35-40 lagun elkartzea espero dute bazkari-ko antolatzaileek. Goizean Eskoriatzako Ferixie ikusi eta gero, Aretxabaletako Hirusta jatetxean elkartuko dira guztiak, elkarrekin bazkaltzeko.

Bertako euskeriaren ikerketa bekia

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako udalek bertako berbetie galtzeko zori-xen ikusitta, beka bat ataratie erabaki daue, bertako euskeriaren ikerketa linguistiko globala egiteko. Ordainsarria, 9.000 eurokoa izango da. Bekien iraupena, 15 hilabete-kua da, eta proposamenak aurkezteko epia, ekainaren 3tik aurrera hilabete egongo da. Informazio gehiago: 943.71.18.62 eta 943.71.44.07 telefonuetan jaso ahal izango da.



Ezeizako guraso eta ikasleen irteera

Guraso Elkarteak antolatuta, Santillana del Mar herrian egon ziren joan den zapatuan Ezeiza Ikastetxeko ikasleak eta haien gurasoak; 110 lagun, guztira. Lehen, urtero egiten zuten irteeratzat bat, eta etenaldi baten ostean, aurten, berriro ere bidaia egitea erabaki dute. Zoologikoa eta Altamirako Neokoba ikusi zituzten, besteak beste. Giro onean pasa zuten eguna./A.G.

Almengo DBHko 4. mailako bidaiaria

Almengo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleak, beste lau irakaslerekin batera, Saloura joan dira ikasketa-bidaian. Bartzelonan geldialditxo egin zuten Zientzien Museoa ikusteko, eta Portaventuran eta Aquapolisen ere egon ziren. Ondo baino hobeto ibili direla esan digute argazkia bidali diguten Eskoriatzako ikasleek. /A.G.



Hurrengo bidaiara nora egin erabaki barik, gustukoa izan da Burgosera egindakoa

AINTZANE GARDOKI

Hiru aste pasatu dira herriko emakume talde bat Burgosen izan zenetik hona. Han atera zituzten argazkiak oraingo astean jaso ditugunez, horiek erakusteko aukera aprobetxatuko dugu.

Burgos hiriburua, inguruak eta Tobalinako ibarra bisitatu zituzten. Pozik etorri ziren guztiak. Sorginak taldeak ez du oraindik erabaki datorren urteko bidaiara nora egin; edozelan ere, aurtentzetik gertu egindako bidaiara oso lasaia eta gustukoa izan dela aditzera eman digute taldekoek.

Oraingo asteburuan, berriz, herriko umeez egingo dute irteera, gurasoekin, Getariara.



Herriko 15 emakume izan ziren Burgosen asteburua pasatzen.

Aurten etxetik gertu egindako bidaiara oso lasaia eta gustukoa izan ei da emakumeendako



Denetarako astia izan zuten emakumeek, baita erosketak egiteko ere.

MATILDE ARRESE / ERRETIRATUA

"Parisekin gelditzen naiz"

Matilde Arresek 84 urte ditu. Duela 15 urte herriko emakumeak bidaiatzen hasi zirenetik hona, ez du inoiz hutsik egin. Datorren urtean ere, ondo badago, bidaiara egingo du.

Pozik Burgosen?

Oso pozik. Oso probintzia polita iruditu zait. Gainera, primeran pasatu dugu!

Zer da gehien gustatu zaizuna? Orokorrean, dena. Eliza eta monasterio izugarriak ikusi ditugu. Hiriburua-



rekin ere ezusteko handia hartu dut: kaleak, lorategiak... **Sorginak taldeak antolatu dituen bidaiara guztietan izan zara.** Paris izan zen guztien artean lehena. Gero etorri dira Lisboa, Madril, Sevilla, Toledo,

Salamanca, Santander... (Pentsakor gelditu da). Ondo pasatu dugu gero, beti!

Zein gustatu zaizu gehien?

Parisekin gelditzen naiz. Izugarriak egin genituen han. Ardo zahatoa edonon ateratzen genuen. Eraman genuen kasetearekin trikitixa nonnahi dantzatzen genuen.

Nora joango zinateke gustura? Asturiasera. Hara ez naiz inoiz joan, eta badut Asturias ikusteko kapritxoa.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

Mitarte Garai baserri-turismo etxe berritua



Orain sei gela bikoitz ditugu, telebista eta guzti, eta hiruk bainugela ere badute



Lasai-lasai egoteko taberna

Mitartegarai

Areantza auzoa
Aretxabaleta
Tel. 943 79 17 51
mitartegarai@euskalnet.net

Batzarretarako gela ireki berria ere badaukagu!

Beren xelebkeriak mundura zabaldu zituzten.


Ibarrekoak Xeleberrin aurkituko dituzu

XELEBERRI

- Martitzenetan, 20:30ean
- Errepikapena eguaztenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: Iratxe Eguen




Goitb
Goiena Telebista



Gemes: zure gorputza goitik behera zaintzen dugu

TERMOESTIMULAZIOA


Gorputzeko tratamendua



- zelulitisaren aurkakoa
- loditasuna
- zirkulazio arazoak
- lasaigarria
- drenajea
- reafirmatzailea
- erditze ondokoa

HYDRASOIN

Aurpegiko tratamendua



- Hidratazioa eta zimurren aurkako tratamendua
- Lifting-a



Gemes edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

- Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz.
- Dekolorazioa
- Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa
- Pedikura
- Dieta pertsonalizatuak
- Betileen tindaketa
- Solarium-a